



BOZUE UDALTALDE 21



**Tokiko Agenda 21. Altzo.
Diagnostikoaren Sarrera eta Mapak.**

Izenburua / Título:	Tokiko Agenda 21. Altzo. Diagnostikoaren Sarrera eta Mapak.			
Egileak / Autores:	Paisaia, S.L.			
Hartzaileak / Destinatarios:	Altzoko udala.			
Edizio data / Fecha de edición:	2006ko irailaren 11a			
Itzulpena / Traducción				
Orriak / Páginas:	13			
Bertsioa / Versión:				
Erreferentzia / Referencia:				
Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:	2006ko otsailaren 20a			
Iraupena / Duración:	18 hilabete			
Bertsioen historia / Historial de las versiones:	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas

AURKIBIDEA

TESTUINGURU ESPAZIALA

Mapa 1: Kokapen Geografikoa

PAISAIAREN EBOLUZIOA UDALERRIAN

Bozue Udaltalde 21eko udalerrien paisaian emandako aldaketak

Udalerriko paisaian emandako aldaketak

Mapa 2: Paisaiaren Eboluzioa

DIAGNOSTIKOAREN MAPAK

Mapa 3: Natur eta Kultur Ondarea

Mapa 4: Baso Erabilerak

Mapa 5: Nekazaritza eta Abeltzaintza Erabilerak

TESTUINGURU ESPAZIALA

Jarraian Altzoko udalerriaren kokapen geografikoa azaltzen duen mapa jasotzen da.

PAISAIAREN EBOLUZIOA UDALERRIAN

Bozue Udaltalde 21a osatzen duten udalerrietako paisaiek azken hamarkadetan zer nolako eboluzioa jasan duten aztertzeko hiru argazki aukeratu dira:

- 1954ean ateratako argazkia, 1:12.000 eskalan, zuri beltzean.
- 1983an ateratako argazkia, 1:18.000 eskalan, zuri beltzean.
- 2004ko ortofotoa, koloretan.

Hiru argazki hauek azken 50 urteetan udalerrri bakoitzeko paisaia eman diren aldaketak ikusteko aukera eskaintzen digute. Jarraian Bozue Udaltalde 21a osatzen duten sei udalerrietan **orokorrean** ematen diren **aldaketak** aipatzen dira eta ondoren diagnostiko honi dagokion **udalerriri** buruz egindako **hausnarketa**, eman diren aldaketa aipagarrienak laburtuaz.

Testuzko deskribapena osatzeko aztertutako hiru argazkiak ondorengo orrietan eranstean den mapa batetan jasotzen dira, udalerriko gunek adierazgarriena erakutsiz.

Bozue Udaltalde 21eko udalerrien paisaia emandako aldaketak

Bozue Udaltalde 21a osatzen duten sei udalerriak aztertu ostean, jarraian aipatzen diren ondorioak atera dira:

- Herriguneez ez dute orokorrean aldaketa nabarmenik erakusten, nahiz eta batzuk beste batzuk baino gehiago hazi. N-1 eta trenbidearen azpiegituretarik urrun mantendu diren herriguneez landa eremuko udalerrien berezitasunak mantendu dituzte, nahiz eta eraiki diren etxebizitza berrien tipologia orain dela 50 urtekoaren desberdina izan.
- Landa eremuko udalerrietan ematen den joera mantenduz, argazkietan ikusten da udalerrietako baserri edo etxebizitzak

inguruetan beste erabilera batzuetarako sortu diren eraikuntzak ageri direla 1954 eta 2004 bitartean.

- 1954ko argazkietan udalerrri guztiak **bide edo bidexkaz** josita azaltzen dira. 2004 urtera heldu ahala, ikus daiteke bide asko garrantzia galtzen edo desagertzen joan direla, eta baserri edo auzoetara iristeko eta ondoko udalerriekin komunikatzeko bide nagusiak soilik mantendu direla.
- Orokorrean, landa lurren erabilerak antzeko bilakaera jasan du sei udalerrietan. 1954an nekazaritza erabilera duten gune zabalak lursail txikitan banaturik azaltzen dira, eta labore desberdinez estalita. Ondorengo argazkietan lursailen erabilerak berdintzen joan direla ikus daiteke. Beraz, **labore desberdinez osatutako nekazaritza erabilera anitzetik, belardi zabaletan oinarritutako abeltzaintza erabilerara aldaketa bat eman dela esan daiteke**. Honez gain, labore-lur askok paisaiarekiko esanguratsuagoak diren aldaketak jasan dituzte, baso-landaketa bihurtu baitira. Baso-landaketen ugaritzeaz gain, bertako basoen gaineko presioa gutxitzeak hauen berreskurapena ekarri du kasu askotan, azken hauen dentsitatea gehituz. Aipatutako aldaketa hauek herri guztietan ematen diren arren, udalerrri bakoitzaren analisia egiten denean bakoitzari dagozkion ezaugarriak nabarmenduko dira, N-1ak, trenbideak eta industrializazioak eragin desberdina izan baitute udalerrri bakoitzean.
- Laburbilduz, paisaiaren **sinplifikazio** bat eman da aztertutako epean, baina aldaketa bortitza izan ez denez, paisaiaren izaera mantendu dela esan daiteke.

Udalerriko paisaian emandako aldaketak

Jarraian Altzoko udalerrriaren eremuetan eman diren aldaketa nagusiak laburbiltzen dira:

- 1954tik 2004ra bitartean herrigunea hazi da, ziurrenik N-1aren eta trenbidearen gertutasuna dela eta.
- Udalerriko azpiegitura garrantzitsu bat harrobia litzateke. 1954ko argazkian ez da harrobiaren aztarnarik ikusten, baina 1983an

harrobiko erauzketa lanak nabari dira paisaian jada. 2004ko argazkian harrobiaren handitzea nabarmena da.

- Baso landaketen kasuan, aipatzekoa da udalerraren ekialde eta hegoaldean eman den ugaritzea, herrigune eta auzuneak bakarrik gelditzen direlarik erabilera honen kanpo.

Jarraian Altzoko paisaiaren eboluzioa erakusten duen mapa jasotzen da.

DIAGNOSTIKOAREN MAPAK

Jarraian jasotzen diren mapak udalerriko diagnostikoaren dokumentuko ondorengo atalekin lotuta daude:

- Mapa 3 "2.1. Natur gune eta elementu natural babestuak" eta "1.3.6.1. Ondare kulturala".
- Mapa 4 "6.1. Baso ustiapenak".
- Mapa 5 "6.2. Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak".